



EBAZPENA, 2022KO OTSAILAREN 2KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO BIGARREN HEZKUNTZAKO, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO, MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOETAKO ETA ARTE PLASTIKOETAKO ETA DISEINUKO KATEDRADUN ETA IRAKASLEEN KIDEGOETAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOKO LANGILE FUNTZIONARIOEN ERKIDEGO MAILAKO 2021/2022KO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN ONARTUTAKO PARTE-HARTZAILEEN, MEREZIMENDUEN BAREMOAREKIN, ETA KANPOAN UTZITAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA

Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean erkidego mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2021eko azaroaren 12an),

EBATZI DUT:

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko administraziooko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen kidegoko langile funtzionarioen erkidego mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda argitaratzea, Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko Aginduaren I. eranskinean zehaztutako baremoaren arabera emandako puntuazioa adieraziz.

Bigarrena.- Argitara ematea aipatutako kidegoetako karrerako langile funtzionarioentzako erkidego mailako lekualdatze-lehiaketan onartuak izan ez diren parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda. Onartu ez izanaren arrazoia adieraziko da.

Hirugarrena.- Lehiatzaileek zuzendu ahal dituzten akats formalak dituzten merezimenduen zerrenda argitara ematea.

Laugarrena.- Epe bat irekitzea, 2022ko otsailaren 4tik 17ra, biak barne, erreklamazioak egiteko eta zuzengarri diren akatsak zuzentzeko.



Bostgarrena.- Erreklamazioak/zuzenketak Interneteko helbide honetan aurkeztu beharko dira: <https://hezigunea.euskadi.eus>. NANarekin eta pasahitzarekin identifikatu ondoren, Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze Lehiaketa / (Erreklamatu nahi dituzun atalei dagokien esteka aukeratu beharko duzu)

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 2a